

Amaia San Vicente Roncal

**EU
SK
AR
A**

**HAUR HIZKERAREN
TRANSMISIOA:
ESKOLAREN EGINBEHARRA ETA
AZPEITIKO KASUA**

GBL 2014

000
upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Infantil

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

**Haur Hizkeraren transmisioa: eskolaren
eginbearra eta Azpeitiko kasua**

Amaia San Vicente Roncal

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Amaia SAN VICENTE RONCAL

Izenburua / Título

Haur Hizkeraren transmisioa: eskolaren eginbearra eta Azpeitiko kasua.

Gradu / Grado

Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Ekaitz SANTAZILIA SALVADOR

Saila / Departamento

Filología y Didáctica de la Lengua
Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2013/2014

Seihilekoa / Semestre

Udazkenekoa/ de Otoño

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduoko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako moduluak bidea eman digu 0-6 urte bitarteko umeen garapen kognitiboa ezaugutu eta behatzeko eta prozesu honetan testuinguru desberdinek familiak, eskolak nahiz gizarteak duten eraginaz jabetzeko. Etaparen ezaugarri komunikatiboez, sozialez eta afektiboez ohartzeko aukera ere izan dugu, Haur Hizkeraren erabilera eta ezaugarriak zeintzuk diren behatuz. Gizartea eraldatuz doa etengabe eta horrek eragina du familia nahiz eskolan. Azken urteotako zenbait joerek, gurasoen laneratzeak zein haurrak geroz eta lehenago eskolaratzeak, umeen hizkuntz garapena zein eratan baldintzatzen duen aztertzeak aukera eman digu lanak, horrenbestez. Zentzu honetan gurasoek hizkuntz transmisioan betetzen zuten papera irakasleari esleitu ote dakion izanen da gure hausnarketa-lerroetako bat. Ondorioz, irakaslearen funtzioez eta helburuez mintzatuko gara. Zentzu honetan, familia eta eskolaren arteko komunikazioa eta elkarlana ere mintzagai izanen ditugu. Etaparen antolaketaz eta Haur Hezkuntzako Curriculumak gure aztergaiaren inguruan zehazten duenaz ere mintzatuko gara.

Didaktika eta diziplinako moduluak bidea eman digu hizkuntzaren jabekuntzaren prozesuaz hitz egin eta garapen horretan zehazten diren faseez mintzatzeko, batez ere, helduek hurrekin hizkera moldatzen duten epealdian arreta jarritz. Hizkera berezi horren erabilera baloratu eta helduen hizkeraren moldaerarako arrazoia zein den zehaztu ahal izan dugu, mundu mailako errealitateari so eginez aurrena, Euskal Herrikoari begiratuz ondoren eta Azpeitiko kasua ikusmiran izanik, azkenik.

Halaber, Practicum moduluan zehazten da teorian ikasitakoa praktikarekin erkatu beharra dagoela. Lanaren bigarren atalak zeregin honetan lagundu digu. Lanaren lehen atalean ikergaiaren inguruko marko teorikoa landu dugu eta ondoren bertan eskuratutako informazioa Azpeitiko herritarren hizkuntz erabilera behatzeko baliogarri izan zaigu; helduen umekiko interakzioan zertan erreparatu, elkarrizketetan zein hariri heldu... Bertan jasotako datuek orobat, gaiaren inguruko hausnarketa egiteko bidea ireki digute. Horrekin batera, gure gaitasun linguistiko eta sozialak garatu ahal izan ditugu, Azpeitiko euskalkiaren ezagupenean sakonduz eta areago, haur hizkeran.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau Amaia San Vicente Roncal

erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira *Introducción* eta *Conclusiones* atalak, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Helduak, umea jaiotzen denetik hizkuntza bereganatu bitartean, harekin mintzatzeko bere diskurtsoa egokitzen du, baliabide desberdinak erabiliz. Horri haur hizkera deritza. Erregistro honen funtzioak eta erabilera aztertu dira ikerketa lan honetan. Horretarako, mundu mailan haur hizkerari buruz ikertu eta idatzi duten autoreen iritziak jaso dira lehenik; Euskal Herriko soziolinguistika alorreko adituen hitzak, gero. Era horretan, *Euskarazko Haur Hizkerak* duen osasunari erreparatu diogu lan honetan. Egun euskara bizi-bizi mantentzen den herri batean, Azpeitian, herritarrek erregistro hau ote darabilten ere ikertu nahi izan dugu, zenbait herritarren iritziak bilduz; guraso, aiton amona eta irakasleena, hain zuzen. Izan ere, burututako ikerketak haur hizkerak hezkuntzaren alorrean lekurik ba ote duen eta beharko lukeen hausnarketa eta eztabaida bultzatzea du helburu.

Hitz gakoak: hizkuntzaren jabeakuntza; haur hizkera; ahozotasuna; transmisioa; hezkuntza.

Resumen

El adulto modifica su forma de hablar con el niño, desde su nacimiento hasta que este culmina el proceso de adquisición del lenguaje, a través de diversos recursos. Ese registro del habla se denomina *lenguaje maternal*. Este ensayo recoge las funciones y el uso de este registro. Para ello, primeramente, hemos recabado opiniones de autores que han escrito acerca de este registro lingüístico. Posteriormente, hemos analizado las opiniones de algunos expertos de Euskal Herria. Pretende el presente trabajo, por tanto, explorar la utilización de este registro lingüístico en la lengua vasca. Asimismo, hemos realizado un estudio *in situ* con el objetivo de observar su uso en el municipio de Azpeitia. Padres, abuelos y docentes del pueblo han colaborado con nosotros para realizar esta labor. El cometido de este análisis ha sido abrir un debate y crear una vía para la reflexión a cerca de la conveniencia de utilizar este registro en el ámbito educativo y más concretamente en la etapa 0-3 de Educación infantil.

Palabras clave: adquisición del lenguaje, lenguaje maternal, oralidad, transmisión, educación.

Abstract

Using a variety of resources, adults modify their speech since the moment a child is born until he/she acquires the language. That language modification is called Child-directed Speech. This essay studies the functions and usage of this register. In order to analyse that, we have first collected the opinions of authors from all over the world; then, we have focused on the assumptions and theories of the most important sociolinguists of the Basque Country. This way, we have researched on the register used by adults to communicate with babies in the Basque language. Furthermore, this work examines whether the inhabitants of Azpeitia, where Basque language is widely spoken, use this speech or not, and if that is the case, which is the manner they do it. Grandparents, parents and teachers have collaborated with this study. The aim is to reflect that usage and cause a debate about the necessity of including this register at infant education institutions.

Keywords: language acquisition; Child-directed Speech; oral tradition; language transmission; education.

Résumé

L'adulte modifie sa façon de parler avec l'enfant, depuis sa naissance jusqu'au moment où celui-ci conclut le processus d'acquisition du langage, par l'intermédiaire de plusieurs ressources. Cet registre linguistique s'appelle langage maternel. Ce mémoire rassemble les fonctions et l'utilisation de cet enregistrement. Pour cela, nous avons tout d'abord recueilli les opinions d'auteurs qui ont écrit à propos de cette registre linguistique. Ensuite, nous avons analysé les opinions de quelques experts d'Euskal Herria. Par conséquent, ce mémoire veut explorer l'utilisation de cet enregistrement linguistique dans la langue basque. De même, nous avons réalisé une étude de terrain afin d'observer son utilisation dans la localité d'Azpeitia. Parents, grands-parents et enseignants du village ont collaboré avec nous pour réaliser cette tâche. Cette analyse a pour objet d'ouvrir un débat et de créer une voie pour réfléchir à propos de la convenance de l'utilisation de cet enregistrement dans le milieu de l'éducation et, plus précisément, dans la tranche 0-3 ans de l'éducation infantile.

Mots-clefs: acquisition du langage, langage maternel, oralité, transmission, éducation.

Aurkibidea

INTRODUCCIÓN.....	12
1. HAUR HIZKERAREN IKUSKERA MUNDUAN.....	14
1.1. Hizkuntzaren jabekuntza.....	14
1.1.1. Frederic Skinner, baldintzapena eta imitazioa bitarteko gisa.....	14
1.1.2. Noam Chomsky, jaiotzetiko gaitasuna.....	14
1.1.3. Lev Vigotsky, interakzioa giltzarri.....	14
1.2. Haur hizkeraren definizioa.....	15
1.3. Unibertsala.....	16
1.4. Erabili ala ez.....	16
1.5. Funtzioak.....	17
1.6. Ezaugarri orokorrak.....	18
1.6.1. Hizkuntza berbala.....	18
1.6.2. Hizkuntza ez berbala.....	19
2. HAUR HIZKERA EUSKARAZ.....	20
2.1. Ahozotasunaren garrantzia.....	21
2.2. Euskal haur hizkeraren ezaugarriak.....	23
2.2.1. Berezitasun fonetikoak.....	23
2.2.2. Berezitasun morfosintaktikoak.....	24
2.2.3. Berezitasun lexikalak.....	25
2.3. Haur hizkera, eskolan?.....	26
2.3.1. Curriculumarekiko lotura.....	28
2.3.2. Eskolaren funtzioa.....	30
2.3.3. Irakaslearen papera.....	31
2.3.3. Irakaslearen papera.....	31
3. AZPEITIKO HAUR HIZKERA.....	31
3.1. Datu orokorrak eta aurretiazko ikerketak.....	31
3.2. Urolaldeko euskalkia.....	34
3.3. Aurretiazko ikerketak.....	35
3.4. Gure ikerketa.....	35
3.5. Emaitzak eta horien eztabaida.....	37
3.5.1. Grabazioak.....	37
3.5.2. Elkarrizketak.....	41
CONCLUSIONES.....	46
ERREFERENTZIAK.....	48
ERANSKINAK.....	52
E1. ELKARRIZKETAK.....	52

INTRODUCCIÓN

La adquisición del lenguaje es un proceso cognitivo complejo que desarrollan los seres humanos desde el nacimiento. En ese periodo el niño es especialmente receptivo al lenguaje y más concretamente a la lengua nativa. Los adultos adoptan una variante lingüística denominada “lenguaje maternal” o “Habla dirigida al niño” para dirigirse a los bebés durante esta etapa (Tomasello, 2003).

Desde el nacimiento los bebés están preparados para una conducta de interacción y comunicativa que poco a poco van desarrollando. Muestra de ello son las gesticulaciones (el uso de la mirada, las señales, la dinámica de turnos de conversación, etc.). La comprensión se desarrolla por encima de la producción ya que la comprensión sólo requiere reconocimiento; en cambio, la producción implica el recuerdo, es decir, relacionar el concepto con su significado (Flavell, 1995: 356).

A los dos meses los bebés empiezan a realizar sonidos llamados *arrullo*. A los seis meses aparece el balbuceo, en el que los niños repiten combinaciones de consonantes y vocales en series largas. Sin embargo, este balbuceo se va refinando y asemejando a los sonidos y a los patrones de entonación de la lengua materna y se empiezan a usar distintos sonidos dependiendo del contexto en el que se utilizan. Es en este momento cuando se empieza a experimentar con la función semántica del lenguaje. El desarrollo fonológico también caracteriza este proceso: al comienzo del habla utilizan un mismo sonido para pronunciar distintas palabras. El desarrollo semántico aumenta considerablemente entre los dieciocho y los veinticuatro meses (Flavell, 1995). No obstante, existe una gran variedad de factores que interactúa de forma compleja en el desarrollo del lenguaje, como son las capacidades cognitivas, el ritmo de maduración neurológica, la personalidad del niño y la esencial para este trabajo, la cantidad y calidad de la comunicación adulto-niño.

Debido a las características mencionadas anteriormente, durante este proceso el emisor de la lengua, el adulto, adecua su mensaje –en forma de órdenes, afectos– a través de diversos medios: el lenguaje verbal (la entonación, el ritmo, las repeticiones, las omisiones, el léxico diferenciado) y el lenguaje no verbal (gesticulaciones, etc.) para con su receptor, el niño. Este fenómeno es conocido como lenguaje maternal (*Haur hizkera*, en su versión vascófona).

El presente trabajo pretende analizar este registro y sus particularidades en euskera. Por tanto la denominación del objeto a analizar será Haur Hizkera (HH) o en referencia al correspondiente registro de la lengua vasca Haur Hizkera Euskaraz (HHE). Es objeto de este trabajo, finalmente, analizar la situación de este registro en el municipio de Azpeitia. Nos referiremos a éste último objeto de estudio como Azpeitiko Haur Hizkera (AHH).

La investigación realizada consta de dos partes diferenciadas; la primera, basada en un estudio teórico, es una selección de información publicada en investigaciones anteriores a cerca de la singularidad del HH. Nos centraremos, concretamente, en la definición del concepto, los elementos universales manifestados en todas las lenguas, las particularidades que manifiesta en algunas lenguas, sus funciones y características. Finalmente, recabaremos las opiniones de diversos lingüistas y sociólogos vascos a cerca del HH en euskera (HHE) y su uso (§2.1). También desglosaremos las características del HHE (§2.2).

La segunda parte del trabajo será más práctica. Nos hemos querido acercar al HHE *in situ*, realizando una investigación en el pueblo de Azpeitia. Esta investigación ha tenido dos objetivos principales: por una parte, intentar verificar o anular ciertas hipótesis iniciales; por otra parte, poder observar el uso del HHE en Azpeitia y la opinión de sus habitantes a cerca de este registro. Para ello hemos realizado una serie de entrevistas y grabaciones que detallaremos más adelante (§3.5).

Como futuros docentes en la etapa de Educación infantil nos encontramos ante un gran reto: establecer un vínculo con el alumno que sirva de base para posibilitar su adaptación al medio social, cultural y educativo. La comunicación docente-alumno será de vital importancia para la consecución de este hecho y por tanto debemos valernos de todos los medios disponibles para optimizar este proceso. El habla dirigida al niño puede ser un recurso útil y enriquecedor en ese camino. Pretendemos, por tanto, reflexionar acerca de la conveniencia de integrarla en nuestra formación.

1. HAUR HIZKERAREN IKUSKERA MUNDUAN

Jaiotzen garetik hizkuntzaren jabeakuntza egin bitarteko prozesuaren nolakotasunarekiko interesa aitzinekoa izanik ere, ezbaia sortzen duen gaia da oraindik orain. Prozesu horri esker, gizakiok hizkuntza jaso eta ulertzeko gaitasuna eskuratzen dugu, baita komunikatzeko gaitasuna geureganatu ere.

Haur Hizkeraren transmisioa: eskolaren eginbeharra eta Azpeitiko kasua.

1.1. Hizkuntzaren jabekuntza

Hizkuntzaren jabekuntzaren inguruan hiru teoria nagusi bereizten dira egun.

1.1.1. *Frederic Skinner, baldintzapena eta imitazioa bitarteko gisa*

Skinnerren ustez (1981) baldintzapen operantearen bidez egiten dute haurrek hizkuntzaren jabekuntza. Umeei hotsak sortu ahala, gurasoek irribarre, begiraden eta afektuzko keinuen bidez indartzen dituzte ekimen hauek eta euren hitzekiko hurbilpenak modu xamur eta beroagoan hartzen dituzte. Bestalde imitazioaren bidez ere ikasten dute haurrek. Bi baliabide horien bitartez egiten dute umeei hizkuntza eurena.

1.1.2. *Noam Chomsky, jaiotzetiko gaitasuna*

Hizkuntza interpretatzeko eta sortzeko gaitasuna geure egitura mentaletan oinarritzen da. Garapen biologikoaren ondorioa da, soilik gizakiari dagokiona. Hizkuntzaren jabekuntzarako mekanismoa jaiotzetikoa da: gramatika unibertsalaren arauak jasotzen dituen biltegitzat definitu zuen Chomskyk (1989). Mekanismo honek ahalbidetzen du umeei oso goiz eta azkar halako egitura konplexua –hizkuntza– bereganatzea.

1.1.3. *Lev Vigotsky, interakzioa giltzarri*

Vigotskyren arabera (1979), ekimen kognitibo guztiak sozializazioari esker gorpuzten dira. Beraz, gaitasun kognitiboak ez daude jaiotzetiko faktoreek zehaztuta, norbanakoa haziko den erakunde sozialetan praktikatzaren diren aktibitateen ondorio baizik ez dira izanen. Garapen kognitiboan hizkuntza pentsamenduaren oinarri eta giltzarria da, umeei nola pentsatu ikas dezan: pentsamendu aurreratua hitzen bidez transmititzen da.

Haur hizkeraren ikuskera arestian aipaturiko teoria horiek baldintzatzen dute. Baina aurrera egin aitzin haur hizkera definitzeari ekingo diogu lehenik.

1.2. Haur hizkeraren definizioa

Hizkuntzaren moldaera bat da haur hizkera. Hizkera esatean egoerari egokitutako hitz egiteko modua esan nahi dugu (Aurkerena et al., 1999: 9). Haur hizkerak bi adiera izan litzake: haurrek egiten duten hizkera batetik eta helduek haurrengana zuzentzean erabiltzen duten hizkera, bestetik. Lehenengo ikuspegiak haurren hitz egiteko moduari erreparatzen dio, haurrek hitz egiten hasten direnetik aurrera erabiltzen duten hizkera horri, hain zuzen (Zubiri, 2002: 16).

Lan honek ordea, helduek haur bati zuzentzean erabiltzen duten mintzaerari erreparatuko dio. Tatiana Gavrilovaren definizioa erabiliz, haur hizkera helduek umeekin mintzatzeko darabilten erregistroa da (2012: 31). Gizakiok geure hizkera egoeraren arabera moldatu ohi dugu: euskaraz lagunarteko hitanoa edota errespetuzko berorika erregistroak izango lirateke horien adibide.

Deitura desberdinak erabiliz izendatu izan da haurrei zuzentzen gatzaizkienean darabilgun mintzaera hizkuntzalari eta antropologoek lanetan. Gaiaren inguruko bibliografiari erreparatuz gero, honako terminoak aurki genitzake, kontzeptu bera adierazteko: ume hizkera (baby talk), ama hizkera (motherese) edota haurrei zuzenduriko hizkera (Child-directed speech, CDS) (Snow, 1986). Lan honetan zehar Haur Hizkera (HH) terminoa erabiliko da. Baita Haur Hizkera euskaraz (HHE) edota Azpeitiko Haur Hizkera (AHH) ere, komunitate horietako hizkeraz ari garelarik, lehenago aurreratu dugun bezala.

1.3. Unibertsala

Zenbait ikerlarik erregistro honen unibertsaltasuna aldarrikatu duten arren (Bryant & Barret, 2006: 746), beste zenbaitek frogatutzat jo dute zenbait komunitatetan HH ez dela existitzen (Ochs, 1995: 76).

Horren adibide honako bi adierazpen kontrajarriak:

Gaurko eguna bitarte aztertu diren hizkuntza guztietan haur hizkera hizkuntzaren erregistro bereizgarri gisa deskribatu da, eta antzeko ezaugarriak agertzen ditu hizkuntza desberdinetan, aldaera batzuk gora behera.

(Barret & Bryant , 2006: 746. Itzulpena nirea)

Guk egindako behaketen ondorio gisa esan genezake ume normal orok hizkuntza bere egiten duela bizitzako lehen urteetan, eurekiko interakzio eta hizketa eredu desberdinen ginetik –ereduak eta komunikazio estrategiak izan badira anitzak komunitate batetik bestera–.

(Ochs & Schieffelin, 1995: 76. Itzulpena nirea)

1.4. Erabili ala ez

Hizkuntzaren jabekuntzarako teoria nagusiei jarraiki bi dira haur hizkeraren inguruan egun bereizten dira jarrerak. Haur hizkera hizkuntzaren jabekuntzarako tresna dela dioena bata; haur hizkera hizkuntza ikasteko nahitaezkoa ez dela dioena edo ez deusa dela dioena bestea.

Hizkuntza ikasteko haur hizkera ezinbestekoa denik ukatu egiten dute zenbait adituk. Izan ere, ikerketa antropologikoez agerian jarri dituzten datuen arabera, munduko komunitate batzuetan ez da haur hizkerarik (Pinker 1994: 39-40).

Munduan barrena beste komunitate ugarian erabiltzen da haur hizkera, ordea. Salbuespenak salbuespen, hizkuntza gehienetan zabaldua dagoen aldaera diskurtsiboa da. Hala ere, hizkera itsusiztat jo izan da zenbaitetan: gurasoen artean errotuta dagoen estereotipo negatibo honen arabera, hizkuntza jabekuntzarako eragin txarra izan liteke honako hizkera eta fonemak oker ikasteko bide. (Gavrilova, 2012: 32).

Horren adibide, esaterako, Ameriketako Estatu Batuetako Texas Estatuak umeen zaintza eta babeserako departamentuak argitaratutako formaziorako eskuliburuan, umeen hizkuntza garapena sustatzeko hezitzaile eta zaintzaileei egiten zaizkien aholkuen artean haur hizkera ez erabiltzeko gomendioa irakur daitekeela, hitzez hitz (Wiggins, 2000: 4). Dokumentu horrek berak azpimarratzen duenez, umeei hiztegi "egokia" erabiliz zuzendu behar gatazkie hala ere HHren esanahi mugatua erabiltzen du paragrafo berean honako gomendioak irakur baitaitezke: mintzatu begietara begiratu umearekin, hitz sinpleak erabili, hitzak eta objektuak lotu, errepikatu umeak egiten dituen soinu, hots eta zaratak (Wiggins, 2000: 4).

Jendeak maiz ez du onartzen haur hizkera erabiltzen duenik. Estereotipo honek gatazka eragin dezake pertsona batek umeei hitz egiteko molde egokiaren inguruan duen iritzia eta egoera komunikatibo horren aurrean duen eskakizunaren artean (Gavrilova, 2012: 32).

1.5. Funtzioak

Aurreiritzi horien aurka eta haur hizkeraren erabileraren onurak aipatuz bestetik, hainbat hizkuntzalari ere agertu izan da. Hizkuntzaren jabekuntzarako urrats gisa ulertu izan duen aditurik bada (Brown, 1977: 1-27).

Hizkuntzaren funtzioei erreparatu izan diete maiz adituek haur hizkeraren erabileraren

zergatiak aztertzeke garaian. Pertsonak, mintzatzen denean, mintzakideak berak esan nahi edo asmo duena uler dezan eran osatzen du bere diskurtsoa. Helduen arteko eguneroko elkarrizketetan mezuak kanal anitz erabiliz helaraz ditzakegu: sintaxia, semantika edota prosodia erabiliz, esaterako. Umeei geure mundu ikuskera adieraztea bestelako erronka da ordea. Bestelako hizkuntza-sistemak erabiltzera behartuta gaude, ondorioz (Barret, 2006: 746). Hortxe koka liteke haur hizkera.

Zergatik darabilte helduek HH? Ugariak izan dira adituek proposatu dituzten arrazoiak. Besteak beste, honakoak aipatu izan dira; umeen arreta erakartzea eta asmo afektiboak komunikatzea (Fernald, 1989: 479-480). Zalaparta handiagoa sortu izan dute HH hizkuntza ikasteko bide dela adierazi izan duten teoriak: dela bokalen kategorizazioa, dela gramatika alorreko hainbat nozio (Barret & Bryant, 2006: 746). Fernald-ek (1989) HHren funtzioa garapena eman ahala aldatuz doala nabarmendu zuen. Hasieran, zeinuek umeen arreta erakartzeko balio dute, baina bigarren urtearen inguruan haur hizkerak hizkuntza helburu zehatzagoak bete ditzake.

Umea hizketa molde ugariaren aurrean dago jaiotzetik eta horiek ezinbesteko zaizkio bere sistema propioa eratzeko. Hizkuntza gertatzen den testuinguru komunikatiboak, interakzioak eta haren ezaugarriek badute zeresanik hizkuntzaren jabeakuntzan. Umeei hizkuntza irakasteko bide baino areago, HH umeekin elkarreragina eta komunikazio zuzena lortzeko tresna gisa da interesgarri.

1.6. Ezaugarri orokorrak

1.6.1. Hizkuntza berbala

Helduek umeekin hitz egiten dutenean euren diskurtsoa egokitzen dute era desberdinetan analisi linguistikoan azter daitezkeen maila guztietan (O'Grady, 2005).

Haur hizkeraren zenbait ezaugarri komunak dira hizkuntza guztietan: sinplifikazio fonetikoa, aurrizki txikigarriak, lehen eta bigarren pertsonaren desagerpena hirugarren pertsonaren mesedetan, genero aldaketa, lexiko berezituia, parataxia, etab. (Gavrilova, 2012: 32).

Miguel Siguaneke zerrendatutako ezaugarriak aintzat hartzekoak dira, halaber (1984: 10-11):

- Hizkuntza zuzena, ongi ahoskatua.
- Hizkera sinplea, gramatikalki nahiz lexikoari dagokionean.

- Errepikakorra hitza nahiz esaldiak behin baino gehiagotan ahoskatzen dira, forma bera edo antzekoa erabiliz.
- Hizkera enfatikoa, tonuaren aldetik helduekin erabiltzen dena baino altuagoa, intonazioa markatuagoa eta erritmoa zertxobait motelagoa.
- Esanahi bereko keinuek lagundutako hizkera.
- Umearen uneko egoerari erreferentzia egiten dion hizkera da.

Beste ezaugarri bat ere aipa liteke: ikuspuntu funtzionalari dagokionean, galdera-erantzun eta agintezko perpaus asko erabiltzen dira, haurraren ahozko zein ekintzazko erantzunak bultzatzearen (Zubiri, 1995: 179).

Badira, aipaturiko ezaugarri berbal horietaz aparte, ez berbalak diren ezaugarriez ere hitz egiten duten ikertzaileak. Horien artean, Owens-ek (2003: 174-175) adierazten du helduek hurrei hitz egitearekin batera keinu eta aurpegi espresio ugari erabiltzen dituztela, umea adinean gora doan heinean gutxituz doazenak.

1.6.2. *Hizkuntza ez berbala*

Heldu eta haurraren arteko interakzio eredua beraz, haurraren hizkuntza jabekuntzarako erabakigarria da. Robert E. Owens-ek (2003: 178-204) egin zuen zehatz-mehatz elementu hauen zerrenda:

- Keinuak: Helduek hurrekin hitzen bidez komunikatzeaz gain, zenbait keinu erabili ohi dituzte, batez ere umearen bizitzako lehenengo urtean.
- Begirada: Heldu bati zuzendutako begirada segundo gutxi batzuetakoa izan ohi da, hori luzatzeak bestelako sentimendu sakonagoak eragin baititzake. Umeekin alderantziz gertatzen da. Owens-ek berak (2003: 178) egin ikerketan erakutsi zuenez, hurrei zuzendutako helduen begiradak 30 segundo baino luzeagoak izaten omen dira. Jolas egoeretan, denbora hori luzatu egiten da. Helduak, bestalde, umeek begirada nora zuzentzen duten adi izaten dira, horrela, haurraren intereseko gaiak mintzagai izateko. Helduaren begiradan gertatzen diren bariazioak edo aldaketak, umeen atentzioa bereganatzeko helburuarekin burutzen dira.
- Aurpegiko espresioak: HH-ren osagarri izan ohi dira. Horien erabileraren funtzioak anitzak dira. Gehienetan zerbaiti hasiera emateko, zerbait seinatzeko edo umea zerbait egitera bultzatzeko erabiltzen dira. Honakoak

aipa litezke: aho eta begiak irekitzea, bekainak goratzea, burua alde baterantz makurtzea, etab. Badira espresio baten bidez denbora luzez adieraz daitezkeen egoerak ere: irri baten bidez, esaterako, inolako arazorik gabe gauzatzen ari den egoera bat adieraz daiteke. Alderantziz, kezka egoera bat dagoela adierazteko honako espresioak erabili ohi dira: begiak zabal-zabalik mantentzea, bekainak zuzen edota ahoa erdi-irekita. Helduek era naturalean erabiltzen dituzten espresio horiek umearen atentzioa erakartzea ahalbidetzen dute, baita helarazi nahi zaizkion mezuak hobe ulertzea ere.

- Buruaren mugimenduak: Helduek umeei zuzentzen zaizkien mezuekin burua mugitzeko joera izan ohi dute, hala nola, astintzekoa, makurtzekoa edo alderatzekoa. Gehienetan, harridura adierazteko erabiltzen dira.
- Hurbiltasuna: Hurbiltasunak norberaren barne-espazioaren erabilerari egiten dio erreferentzia, hau da, bakoitzak daukagun espazio pertsonal eta intimoari. Helduen artean espazio hori elkartrukatzeko hautua gutxitan egiten dugu, baina umeekin hitz egitean muga hori ez da existitzen, umeak espazio pertsonal hori izango ez balu bezala jokutzen dugu, hurbiltasun handiarekin elkarreraginez.

Ezaugarri horiez gaindi hizkuntza bakoitzak bere berezitasunak agertzen ditu haur hizkerari dagokionean, hizkuntza egiturak eta desberdintasun kulturelek baldintzaturik (Gavrilova, 2012: 31). Euskarari dagozkion ezaugarriak geroxeago aztertuko ditugu era sakonean, baita Azpeitiko hizkeraren berezitasunak ere (§2.2 eta §3.2).

2. HAUR HIZKERA EUSKARAZ

Soziolinguistikaren alorrean lan egiten duten eta kontsultatu ditugun aditu ugari bat datoz Euskal Herrian haur hizkera erabiltzearen garrantziaz ohartaraztean. Areago, ahozkotasuna azken urteotan gure hizkuntzaren batasun prozesuaren mesedetan bazter utzi dela azpimarratzen dute zenbaitek (Zuazo, 2008:7) eta euskararen ezagutzak gora egin badu ere, orain erronka erabileran datzala nabarmentzen dute. Erabilera sustatzeko euskara eremu ez formaletara eramatea ezinbestekoa da. Euskara eskolatik atera eta bestelako esparruak zipriztindu ditzan ahaleginak egin behar ditugu, herdoildu ez dakigun: kalean, etxean, jokoan, jolasean, kirolean, teknologia berrietan, haurren artean, gazteen artean, etab.

2.1. Ahozketasunaren garrantzia

Hizkuntza ahozkoa da. Joshua Fishman amerikar hizkuntzalariak emandako datuen arabera, munduko sei mila hizkuntzetatik mila hizkuntza inguruk besterik ez dute erregistro idatzirik (Fishman, 2001). Hizkuntza guztiak beren historia guztian zehar ia, idazten ez zekiten hiztunek erabili izan dituzte. Herri horien hizkuntzak idazten dakitenen herrienak bezain egonkorak, aratuak eta aberatsak ditugu (Bloomfield, 1914).

Hiztun guztiok komunitate baten baitan sortzen gara eta bertan lehendik mintzo den hizkuntza ikasten dugu, ia oharkabeen. Erran nahi baita komunitate guztiek belaunaldi belaunaldi transmititzen dutela beren hizkuntza. Aitzitik, mintzaira beti ari da aldatzen, gizartearen jarduerak eta joerak aldatu ahala. Garaian garaiko moldaerei esker, hizkuntzak bere bizitasuna, aldakortasuna eta iraunkortasuna erakusten ditu (Monasterio, 2007:53).

Xamarrek *Herri eta hizkuntzen ekologiak* izeneko bere obra ederrean jasotzen duen aipu batek era argigarrian adierazten duenez, “gehienek belarrietatik ikasia dugu euskara” (2001:71). Jose Angel Irigaray, *Larrekok*, esanak dira hitz horiek. Pilartxo Etxeberriak nabarmentzen duenez, ororen gaintetik, hizkuntza mintzatua komunikatzeko oinarri-oinarrizko tresna dugu.

Jatorrizko euskal hiztunak, –edozein hiztunek dela etxean edo lagunartean hizkuntza oharkabeen bereganatu duenak, ikasia nahiz ez ikasia izan– hizkuntzaren ezaguera sendoa eta harremanetako erabateko gaitasuna du. Eguneroko usadioan, erabilera jakin bakoitzari buruzko gogoetarik egin ez arren, hiztunak senaz jakin badaki, nola, non eta norekin zein molde, estilo edo erregistro erabili (1994: 1528).

Eta umeekin haur hizkera darabil euskal hiztunak, orobat.

Idea berean sakontzen du Koldo Zuazok (2008:7) ere: Hiztunak ohiko mekanismoak ordezkaturik, ebakera alda lezake (eta aldatu egiten du) denbora, leku, egoera eta solaskidearen arabera egokituz. Hizkera horiek guztiok daude hizkuntza “normaletan”, eta, hain zuzen, ugaritasun horrek ematen die hizkuntzei aberastasuna eta, hiztunei, hizkuntzarekin jolasteko eta hizkuntzaz gozatzeko aukera.

Euskararen ikertzaile hau, ordea, kexu da euskararen bilakaera soziolinguistikoak haur hizkeran izan duen eraginaz: “oso galdua eta murriztua dago haur hizkera. Hain aspaldikoak ez diren *mama* ‘ura’, *papa* ‘ogia’, *nene* ‘esnea’, *pipi* ‘txoria’, *popo*

'automobila', *apapa joan* 'kalera irten' tankerako hitz eta esapideak ahaztuak dituzte gaur egungo guraso gazte gehienek. Erdarazko hitz eta esapideak dituzte ordezeko" (Zuazo, 2008: 3) .

Euskararen osasuna da beraz, zalantzan dagoena. Euskara Batua indartzen egin den lana eredu, beste zenbait hizkera –dela hitanoa, euskalkiak edota haur hizkera– sendotzeari ekiteko beharra nabarmena da egun, zenbait hizkuntzalariren iritziz. Jolasteko eta gozatzeko dira, batez ere, hizkuntzak, eta jolasteko eta gozatzeko gaitasun horixe da gaur egungo euskarak nabarmen galdu duena.

Idea hori bera du aipagai Juan Inazio Lizarragak haurrei zuzenduriko bere hiztegi txikiaren hitzaurrean: "Euskararen inguruan lan handia egin da azken hamarkada hauetan. Hizkuntza gaurkotu egin da, modernizatu, eta gizartearen ia eremu guzietara zabaldu da bere erabilera. Baina, bada hizkuntzaren alderdi bat gure gurasoen garaian izugarri aberatsa zena eta, gaur egun, aldiz, murriztu samar gelditu zaiguna. Euskara arruntaz, lagunartekoaz, etxekoaz ari naiz. Gauza txikiez eta egunerokoez betetako euskara honen barrenean leku berezia dauka haurren munduak" (2010: 4).

Zentzu berean, Miren Ibarluzeak (2010: 52) HH-ri buruz zabaldua dagoen aurreiritzia bazter uzteko arrazoiei heltzen die, HH erabiltzeko argudioak eskainiz: "urteetan batzuek uste izan dute ume-berbeta erabiltzeak kalte egiten ziola umearen hizkuntza-jabekuntzari, baina kontrakoa frogatuta dago: haur hizkera erabilia, adierazkortasuna handitu egiten da, bai eta afektibitatea garatu ere, hizkera hori darabilenarekiko eta baita hizkuntzarekiko ere. Ahozkotasuna sentimenduak lantzeko bide ere bada, hortaz".

2.2. Euskal haur hizkeraren ezaugarriak

Euskal Haur Hizkerari buruz argitaratu diren liburuak gehienbat lexikoan zentratu dira; hainbat dira aipa litezkeen adibideak: Joseba Aurkenerena, Covadonga Garcia eta Jon Zelaiaren (1999) *Haur Hizkera*, Juan Inazio Lizarragaren *Haurren munduko hiztegi txikia* (2010) edota Eregik ekoizitako (2013) *Ku-ku, hurrekin hitz egiten hasteko* eskuliburuaren bi argitaraldiak, esaterako.

Hala ere, badira ikertzaileak lexikoaz gain haur hizkerak bereizgarri egiten duten beste ezaugarri batzuk ere badituela erakutsi dutenak. Arestian aipatu ditugu munduko hizkuntza guztietan komunak izan daitezkeen zenbait ezaugarri. Jarraian Haur Hizkerak euskaraz dituen ezaugarriak aztertuko ditugu.

Juan Jose Zubiri irakasle goizuetarrak jaso ditu, modu argigarrian, HHE-ren ezaugarriak. Manuel Lekuonak (1921: 31-37) egindako azterketatik abiatuz, eta Itziar Idiazabalen gidaritzapean lanean diharduen ikerketa talde batek jasotako datuetan oinarrituz, Zubirik ezaugarri horien sailkapena egin zuen hainbat artikulutan.

Berak buruturiko sailkapenean euskarazko haur hizkuntzaren ezaugarri berezko eta bereizleak hizkuntzaren hiru maila linguistikoetan banaturik agertu zituen –fonetikoak, morfosintaktikoak eta lexikoak–.

2.2.1. Berezitasun fonetikoak

Euskarazko Haur Hizkerak arlo fonetikoari dagokionean berezitasun nabarmenak ditu. Aldaketa hauek fonema kontsonantikoaren arloan suertatzen dira, batez ere kontsonante txistukariaren sailketan; sonoritate gehiago lortze aldera eginiko aldaketak dirudite.

1. Taula. Txistukariaren saileko aldaketa fonetikoak

(Zubiri, 1995: 182)

Hotsa	Aldaketa fonetikoak
tz	tx
ts	tx
tx	tx
l	ll
r	ll/dd
t	tt

2. Taula: beste zenbait kontsonante aipagarri

(Zubiri, 2002: 20)

Hotsa	Aldaketa fonetikoak	Adibideak
d	>dd	ederra>ederra
t	>tt	bat>batt
r	>ll (dd)	Burua> bullua
rr	>ll (dd)	etorri>etolli
l	>ll	polita>politta

2.2.2. Berezitasun morfosintaktikoak

Euskarazko Haur Hizkeraren berezko ezaugarri morfosintaktikoaren barnean, bost

ezaugarri nagusi aipa litezke.

Hasteko, aditz laguntzailea ezabatzeko joera handia dago. Euskararen jabekuntza prozesuan aditz laguntzailearen ikasketak arazoak ematen dizkie haurrei nahiko izaera konplexua duelako (Ezeizabarrena, 1996). Hortaz, elementu hori ezabatu ohi da. Horrela, semantikoki eta funtzionalki garrantzitsuak diren elementu guztiak agerian emanaz.

Bigarrenik, haur hizkeran erabiltzen diren hitz zenbaitek ez daramate artikulurik; izen bereziak balira bezala deklinatzen dira horiek.

Hirugarrenik, azpimarratu nahi diren elementu edo sintagmak esaldiaren hasiera eta amaieran errepikatzeko joera dago. Badirudi haurrak eduki semantikoa eta galdetzen zaiona ongi uler dezan egiten dela. Baliabide hau, batez ere, galde-erantzun sistemaren barnean erabiltzen da. Hona hemen Zubirik (1995: 189) agerturiko zenbait adibide: *ama non da ama?, amona etorri da amona?*.

Laugarren elementu aipagarria ekintzak adierazteko erabiltzen diren baliabideak lirateke. Ezin dira egiazko aditzatzat jo. Izan ere, batetik, ez dute aspektu markarik onartzen; horrenbestez, forma bakarrekoak dira beti. Bestetik, ez dute aditz-laguntzailerik onartzen. Horien adibide gisa *punba* aipa genezake, erori ekintzari erreferentzia egiteko edota *aupa* altxatu esateko.

Euskarazko haur hizkeraren azterketa eginez gero, bosgarren berezitasun bat ere aipa liteke maila morfosintaktikoari dagokionean. Lehen eta bigarren pertsonaren erabileraren orde, hirugarren pertsonaren erabilerara jo ohi da.

Bada azkenik, irakurri dugun beste berezitasun bat: haurrari beti zuka egiten zaiola baieztatzen du Ansorenak: "Gaur egun zenbait lekutan zabaldu diren hiketa ohiturak bestelakoak izan arren, tradizioan zazpi-zortzi urte arte (beti ere haurraren arabera) ez da erabili izan". Gure ikerketan bestelakorik ikusiko dugu, dena den.

2.2.3. Berezitasun lexikalak

Arestian aipatu dugun eran hauxe da erregistro hau ikertu duten euskal autoreek gehien jorratu duten arloa. Izan ere, euskarazko haur hizkerak hiztegi propioa dauka. Joseba Aurkenerenak zehazten duen gisan (2009), euskarazko haur hizkeraren baitan aurkitzen ditugun hitzen musika, soinua... helduen kodean erabiltzen ditugunak baino gozoagoak izaten dira, xamurragoak.

Haurrekin erabiltzen ditugun hitzak osatzeko orduan euskarak zenbait bide jorratzen

Haur Hizkeraren transmisioa: eskolaren eginbearra eta Azpeitiko kasua.

ditu. Hauexek dira aipagarrienak:

- Errepikapenak edo kakofoniak: Haurrari helduarekin gauzatzen duen komunikazioa hurbilagoa bilaka dakion, soinuen eta silaben errepikapena izaten da ohiko bideetako bat. Askotan, haurrak bere lehen hitzak ahoskatzeko egiten dituen soinu kakofonikoen imitazioan oinarritzen dira, eta hori dela eta, zenbait hitzek aldaketa nabarmena jasaten dute beren barneko egitura silabikoetan. Adibidez: *akiki egin* (hautsiki egin), *koxka egin* (hozka egin), *papatto* (zapatoa), *txintxin* (dirua, txanpona), *pitxitxi* (katua), *ninia* (haur txikia), *apapa* (kalera atera), *papo* (akabo), *mama* (ura), etab. (Zubiri, 2002: 21)
- Onomatopeiak: Onomatopeiak edo soinuen imitazioak leku zabala hartzen du euskaldunon haur hizkeraren alorrean. Askotan gainera, imitaziozko soinu horiek errepikatzen direnez gero, aurrekoekin nahasi egiten dira. Hauek, seguru aski, izango dira haur hizkeraren barruan oinarritzkoenak. Beraien helburua haurraren hizkera modu hurbilago, xamurrago batez lantzea izango litzateke, hau da, helduen mundu erreala haurren irudimenezko mundura hurbiltzea. Adibideak oso ugariak dira. Ikus ditzagun horietako batzuk: *tax-tax egin* (jo egin), *alolo*, *añoño*, *aioio* (lo egin), *ttaka-ttaka* (haurraren lehen pausoak), *pa* (musua), *mumua* (animalia), *momorroa* (zomorroa), *plixti-plaxta* (haurra uretan jostatzean), *pipi egin* (pixa egin), *fufu* (sua), *punba-punba* (haurra erortzean), *ñañan egin* (jan), *ttun-ttun* (musika), *ttakatan-ttakatan* (korri egin), etab.

Arlo semantikoari erreparatuz, eguneroko haur normal baten jardunarekin lotzen dira hitz berezi horiek guztiak: *apunbala*, *alolo*, *apatx*, *txitxi*... Ondo egindako kontzeptu aukeraketa dago hizkera berezi honen oinarrian (Ansorena, 2002:147).

2.3. Haur hizkera, eskolan?

Haurrari etxean egiten den hizkuntzan mintzatzen gatzazkio normalean. Eta aztertu dugun eran, haurrekin hitz egiteko modu berezia garatu dugu mendeetan. Haurrei hizkuntzak mundua ulertzeko moldeak eskaintzen dizkie. Euskaraz ere, beste hizkuntza bizietan bezala, haur hizkera honen tradizio ederra dago. Baina galtzen ari da, neurri handi batean, besteak beste, etxeko giroan erabiltzen den hizkera batez ari garelako. Eta askotan etxean daudenek ezin dutelako haurtxo hori txikitandik euskaldundu beraiak ere euskaldun berriak direlako... edo erdaldunak (Ansorena, 2002: 148). Arlo

hau jorratzeko interesa izateko deia haurtzaindegiei, Maisu-Maistra Eskolei, Ikastola eta Ikastetxeei eta nola ez, gurasoei egin zien autore honek.

Haur hizkerak eta eskolak izan beharreko harremanaz ezer gutxi idatzi da orain artean. Umea bere ingurune linguistikoarekin harremantzea ezinbestekoa da berak hizkuntzaren jabeakunza eta garapena burutu dezan. Ikaskuntza hau jarraia, testuinguratua eta aktiboa izaten da. Bere ingurune hurbileko pertsonak dira ondorioz, ikaskuntza konplexu hori estimulatu eta sustatzeko egokienak (Jimenez, 2010: 116).

Azken hamarkadetan ordea, industrializazioarekin lehenik eta ondoren, emakumea lan merkatuan murgiltzearekin batera, haurrak hezkuntza erakundeen esku utzi dira, geroz eta goizago, lau hilabetetatik aurrera maiz. Garapenaren etapa honetan umeek landu beharreko gaitasunen sustapena ere hezkuntzako profesionalek egingo dute neurri handi batean.

Ondorioz haur hizkera transmitituko bada, eta aipatu bezala, gure hizkuntza aberasten duen erregistro gisa ulertzen dugunontzat, ezinbesteko izanen da berak haur hezkuntzako 0-3 etapan ari diren profesionalek erabil dezaten.

Izan ere, Miren Ibarluzearen hitzak erabiliz: “egungo lan sistemak behartuta hezkuntzaren bizkar utzi dira aurreko belaunaldietan modu naturalean etxean transmititzen ziren hainbat irakaspen. Beraz, hezkuntzan nola landu, ikasleen gaitasuna hala izanen da etorkizunean. Baita ahozkotasanari dagokionean ere” (2010: 52).

Zentzu honetan, aztertu ditugun haur hizkerari buruzko lanen artean batek agertzen du helburu gisa, irakasleentzat eskuliburu izatea: Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuak argitaratutako lanak hain zuzen, Juan Inazio Lizarragak zuzendurikoak. Honelaxe irakur daiteke Javier Caballero, uneko hezkuntza kontseilariak idatzitako aurkezpenean: “Udal Haurtzaindegietako eta Haur Eskoletako langileak prestatzeko ondua da. Xede horrekin, Nafarroako Gobernuak euskara teknikariek gogoeta egin zuten euskarazko haur hizkuntzaren ezaugarriari buruz eta material bereziak prestatu zituzten. Azpimarratu behar da ez duela izan nahi terminoen eta horien itzulpenen erakusleioa soilik; aitzitik, haurrekin eta hizkuntzekin aritzeko espazio bat eratu nahi du, atsegina baina, era berean, zehatza”.

Juan Inazio Lizarragak berak hitzaurrean zera idatzi zuen: “norentzat izan daiteke bereziki erabilgarria lan hau? Ba, dudarik gabe haurrekin harreman zuzenagoa dutenentzat; hau da, guraso gazteentzat eta hezitzaileentzat. Gure asmoa da eskaintzea

tresna bat euskara txukun eta egokia erabiltzen lagunduko diguna, hurrekin edo hurrei buruz ari garenean (2010: 15)”.

Dena den, gure ikerketan egindako elkarrizketetan gurasoek gai hau eskolan landu dezaten interesik ez dutela sumatu dugu. Euskal Herrian desberdina da, noski, toki batetik bestera euskararen egoera eta honek baldintza lezake gurasoen iritzia eta ikuspuntua. Azpeitiko kasuan euskara oraindik orain, nagusiki, amaren altzoan transmititzen delarik, eskolan hizkera honentzat tokia egiteko beharrik ez dute ikusten gehienek.

2.3.1. Curriculumarekiko lotura

Euskal Autonomia Erkidegoan, 0-6 adin-tartean dauden hurrei mota eta baldintza askotako ikastetxeetan ematen zaie arreta: udalaren titulartasunekoak diren haur-eskoletan, titulartasun pribatuko haur-eskoletan, Haurreskolak Partzuergokoetan, eta, ikastetxe publikoetan eta pribatuetan, bi urteko haurrak eskolatzeko geletan.

Eskola curriculumak ahozketasunari loturik biltzen dituen edukiak eta helburuak aztertzea garrantzitsua iruditu zaigu puntu honetan gure mintzagaiarekiko loturak ezartzeko.

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan (2006ko maiatzaren 3koa) xedatutakoaren arabera, autonomia-erkidegoek Lege horretan araututako irakaspenen curriculuma ezarriko dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio irakaskuntzari dagokion guztiaren gaineko eskumena eta horretaz baliatuz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onartu egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako bi zikloetako curriculuma, eta urtarrilaren 20ko 12/2009 Dekretua argitaratu zuen, Haur Hezkuntzako curriculuma sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren curriculum materialetan zehaztutakoaren arabera, Haur Hezkuntzako lehen zikloan aipatzen diren edukiak, ahozketasunarekin lotuta, betiere, hauexek dira (2010: 47-58):

- Ohiko komunikazio-egoeretan, ahozko hizkuntzaren ulermena eta adierazpena pixkanaka garatzea, bide gisa honetarako: errealitateaz jarduteko, beharrak eta sentimenduak adierazteko, esperientziak gogorarazteko eta norberaren eta

besteen jokabidea arautzeko.

- Norberaren eta besteen komunikazio-asmoetara gero eta gehiago egokitzea.
- Hizkuntzaz kanpoko zeinuak ezagutzea eta, pixkanaka, haiek erabiltzea (intonazioa, keinuak, aurpegi-adierazpena), komunikazioaren esanahia sendotzeko.
- Ahozko adierazpenarekiko eta norberaren hizkuntza-ekoizpenak hobetzeko interesa eta ekimena (lexikoa, perpausak, komuntadura...).
- Komunikazio-trukea zuzentzen duten oinarrizko arauak erabiltzen hastea (hizketan ari denari begiratzea, txandari itxarotea, arretaz entzutea...)
- Hainbat testu mota (ipuinak, olerkiak, abestiak, errimak, aho-korapiloak, asmakizunak, deskribapenak...) arretaz entzuteko eta gogora ekartzeko interesa izatea.
- Kultura-tradizioko testu errazak ezagutzea eta gogora ekartzea.
- Ahotsaren, norberaren gorputzaren, eguneroko objektuen eta musika-tresnen soinu-aukerak aztertzea.
- Zenbait soinu eta kontraste entzumenaren bitartez bereizten hastea: zarata/isiltasuna, luzea/motza, gogorra/leuna...
- Dramatizazio-, imitazio- eta dantza-jardueretan eta gorputz-adierazpeneko bestelako jolas batzuetan parte hartzeko interesa.

2.3.2 Eskolaren funtzioa

Julian Maiak (2000) eskolako hizkeraren inguruan buruturiko doktore tesia izanen dugu oinarri jarraian datozen ideiak elkarlotzeko. Bertan jasotzen denez, eskolak gizartean bete beharreko funtzioari dagokionez, bi ikuspuntu bereiz ditzakegu egun. Zentzu zabalean mintzatuz, eta muturreko kasuak aipatuz, bi motatako eskolak bereiz litezke, inguruarekiko dituen harremanei begiratuta.

Alde batetik izanen genuke ingurunearekin batere loturarik izan gabe diharduen eskola. Eskola eredu horretan ikasgaiak abstraktuagoak dira, orokorragoak, inguruko gizartearekin harremanik gabeak. Eskolaren pareten barrenean eduki gisa tratatzen eta ikasten dena ez da erlazionatzen ez bertako gizartearekin eta ez bertako bestelako ezaugarriekin ere. Eskolaren ulerkera honen arabera inguruko gizarteak eta beraren

ezaugarriek ez dute zertan baldintzatu eskolako lana. Instituzio horrek zeregin jakin batzuk ditu, zehazki finkatuak, eta ez du inguruaren arabera moldatu edo egokitu beharrik sumatzen.

Hizkuntzari dagokionez, jokaera-ildo horretan dabilen eskolak (tradizionalak) ez dio arretarik eskainiko tokian tokiko ezaugarriei. Instituzioak bere baitan du hizkuntz eredua, eta huraxe irakasteko ardura du, bazter guztietan berdin.

Gure ikerketan zehar egiaztatu ahal izan dugu zenbait autorek (Zuazo, 2008; Ibarluzea; 2010) joera hau bera kritikatu dutela, euskara batuarekin gertatua salatuz. Eredu bateratzailea tokian tokiko hizkeren gainean ezarri nahi izan da nonbait, euren ustez, herrietako hizkerak bazter utzirik.

Inguruarekiko harremanik gabeko eskola-eredu horren aurka, azkeneko hamarkadetan aldarrikatzen da beste eskola-eredu bat, gizartean txertatua. Eskola lana antolatzeko orduan, gainera, ingurua lan-gai eta abiaburu hartuta, hura ezagutzea hartzen da lehen helburu gisa, eta ondoren, jakintza abstraktuagoak eta orokorragoak eskaintzea.

Hizkuntzari dagokionez, benetako errealitatea kontuan hartuko luke eredu honek, eta gizartearen nahiari erantzunen lioke. Ikuspuntu honen arabera gogoan hartu beharko litzateke eskolaren inguruko gizarteak hizkuntza nola erabiltzen duen. Horrela, inguruan euskalkia erabiltzen baldin bada, errealitate hori nola edo hala aintzat hartuko litzateke. Gaur egunean hizkuntzaren didaktikaren alorrean bada joera bat, indartsu ari dena, hizkuntzaren ikaskuntza egokitzen eredu bakar bat menperatzea nahikotzat jotzen ez duena, eta horren ordez hizkuntzaren erabilera ugarietara tratamendu bereiziak ezartzeko, eredu ezberdinak lantzea proposatzen da, besteak beste erregistrokako banaketa proposatuz.

Tokian tokiko hizkera lantzeak lagunduko luke eskolako hizkera etxekoarekin eta hurbileko gizartearekin lotzen, eta bata bestea sendotzen duelarik azken batean euskararen beraren erabilera ere indartuko litzateke (Maia, 2000: 429).

2.3.3. Irakaslearen papera

Eskolaren baitan haur hizkera landu beharko litzatekeen erabakitzeko orduan, irakaslea ezinbesteko elementua da. Izan ere, nahitaezkoa da kontuan hartzea bertako irakasleek gaiari buruz duten jakintza eta jarrera. Irakasleak dira edozein proiektu gauzatzeko

ezinbesteko faktore erabakigarria. Euren prestakutza eta sentsibilizazioak zeresan handia izango dute edozein proiektuk arrakasta edo porrota izan dezan. Horren ondorioz, irakasleen iritziei ere leku eginen diegu gure ikerketan.

3. AZPEITIKO HAUR HIZKERA

3.1. Datu orokorrak


Azpeitia Gipuzkoako erdialdeko udalerrria da, Urola kosta eskualdean. 14540 biztanle ditu Eustat Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika erakundeak berri ematen duenez.

Herriguneaz gain Azpeitiak hainbat auzo ditu eta horietako hiruk dute estatistiketan izaera ofiziala: Loiola, Nuarbe eta Urrestilla. Horietaz gain badira beste auzo batzuk txikiak izanagatik ere, ezaugarri berezituak dituztenak, baserriz osatuak baitira eta barreiatuak: Aratz-Erreka, Eizagirre, Elosiaga, Izarraitz, Odria eta Oñatz.

Azpeitiko hizkuntza nagusia euskara da. Herritarrak gipuzkeraz mintzo dira eta, euskalki horren barruan, Koldo Zuazoren sailkapenaren arabera, Urolaldeko hizkeran (2008: 137). 2001eko datuen arabera (http://www.erabili.com/lantresnak/euskar_datuak [Kontsulta: 2014-01-16]), azpeitiarren %87,8 euskaldunak dira, %7 ia-euskaldunak, eta %5,3 erdaldunak. Datu hauek nahiko egonkor mantendu dira 1986. urtetik ondorengo grafikoak adierazten duen eran. Ondorioz, euskara Azpeitian osasuntsu dagoela esan liteke eta transmisioa familian bermatuta dagoela.

1. Grafikoa: euskara adierazleak Azpeitian

http://www.erabili.com/lantresnak/euskar_datuak [Kontsulta: 2014-01-16]



Haur Hizkeraren transmisioa: eskolaren eginbeharra eta Azpeitiko kasua.

Herrian euskarak duen lehentasunezko tokiaren adibide da Euskara Patronatua. Azpeitiko Udalak 1998ko uztailean sortu zuen, euskal hizkuntza eta kultura babestu eta sustatzeko.

Hainbat langintza ditu esku artean, baina bereziki, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) garatzea. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako plana da hau. EBPNren helburu nagusia, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea eta euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea dira.

2001. urtean, Azpeitiko hainbat erakunde EPBN abian jartzearen alde azaldu ziren eta orduetik ari dira berau garatzeko lanean. Lan horren fruitu emankorra izan da *Erabili.com* interneteko ataria. Teknologia berriek, eta internetek bereziki, esku-eskura jartzen dizkiguten lanabesak erabiliz euskarari eta kulturari bideak zabaltzeko asmoz sortua.

Bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu hezkuntza datuei begiratu azkar bat ematea. Azpeitian, hizkuntz ereduak dagokienez, ume guztiak D ereduan daude matrikulaturik (Eustat). Bestalde, herriko jaiotza tasen eta HH-ko matrikulazio datuak agertu nahi izan ditugu eta taula berean erkatu. Izan ere, nahiz eta jaiotza tasa azken bi hamarkadatan egonkor mantendu, 2000. urtetik gorantz egin du nabarmen HH-n matrikulatutako ikasleen kopuruak. Umeen eskolatze goiztiarraren adierazle dira honako datuak:

3.Taula: Azpeitiko jaiotza tasak eta HH-ko matrikulazio datuak

Eustat

Urtea	2011	2006	2001	1996	1991
Jaiotzak	179	156	155	122	138
HH matrikulazioa	812	751	466	438	423

Joera hau ez da Azpeitiako kasuan soilik gertatzen. EUSTAT-ek adierazi izan duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko haurrak gero eta goizago eskolatzen dira. Bi urteko umeen %84 eskolatuta zegoen 2010/2011 ikasturtean. Adin txikiagoetan ere (0-1) eragin bera ageri da, neurri txikiagoan bada ere. 0 eta 2 urte arteko biztanleriaren %34 ikastetxeren batean matrikulaturik zegoela egiaztatu ahal izan dugu EUSTAT-en datu basean.

3.2. Urolaldeko euskalkia

Urolaldeko hizkera erdialdeko azpieuskalkia da Koldo Zuazoren hitzetan (2008: 137).

Hasteko, beraz, erdialdeko euskararen ezaugarriak zerrendatzea komeni zaigu:

- Erdialdeko euskararen ezaugarriak: (Zuazo: 2008, 141-145)
 1. *j*-ren ahoskera ozena: *jan, jakin, jo, josi, etab.*
 2. Galderetan, intonazioaz gainera oso indartsua da al partikula erabiltzeko joera: etorriko al haiz?
 3. *Edun* aditzaren orainaldiko *-e-* erroa: *det, den, dek.*
 4. *Izan*-en pluraleko adizkietako *-e-* erroa: *gera, zera, zerate.*
 5. *Joan*-en *nijoa, dijoa*, erako adizkiak.
 6. Hitanoko adizkietako *-txi-* osagaia. Nor-nork sailean, nor-nori-nork saileko iraganean eta trinkoetan agertzen da gehienbat. *nau*→*natxiok*.

Ikerlariak honako ezaugarriak nabarmentzen ditu hizkera honen bereizgarri gisa:

- Mendebalaren eraginpeko ezaugarriak: (Zuazo, 2008: 137-139)
 1. *-a* bokalaz amaitzen diren hitzak artikuluekin batzen direnean *-a +a* →*-ie* egitea: *patata/patatie.*
 2. *-rik* atzizkia *etxerik etxe* tankerako esapideetan.
 3. *Egin* erroa ahaleran: *daikezu* “dezakezu”.
 4. *-au* dago partizipioetan eta gainera, mendebaleko euskalkian baino indar handiagoa dauka. Mailegu zaharretan eta euskal aditzetan ere erabiltzen da: *barkau* “barkatu”, *gerau* “geratu”, *ingurau* “inguratu”, *etab.*
 5. *-iu* dago partizipioetan aditza *-itu* amaitzen den kasuetan: *garbiu* “garbitu”, *txikiu* “txikitu”.
 6. Irten eta jardun aditzen jokamolde iragankorra: *erten degu, jardun degu.*
 7. Perpaus osagarrietako *-ena*. *Nik antzeman nion ilko zana.*
 8. Galdera perpausetako *ala* juntagailua.

9. Lexikoa: *albo* “aldamena”, *igarri* “nabaritu”, *zapatu* “larunbata”, *gaztai* “gazta”, *keixa* “gerezia”, *txixa* “pixa”, etab.

3.3. Aurretiazko ikerketak

Azpeitian haur hizkerari buruz hausnartu eta berau mantentzeko eginahalak egin direla esateko badira nahiko zantzu. Horren erakusle, Uztarria, herri aldizkariaren atari digitalean, haur hizkeran erabiltzen diren hitzen bilduma bat ikusgai dagoela edonorentzat 2004. urteaz geroztik honako helbidean: <http://uztarria.com/azpeitia/euskara/11>.

Atari horretan bertan irakur daitekeenez, Baite herriko euskara elkarteak 2003an haurrei zuzenduriko ekimena aurrera eramatea erabaki zuen. Arrazoia, haur hizkera euskaraz galtzen ari ote zen beldurra izan zelarik. Haurrei euskaraz nola hitz egin izan zaien jaso eta hiztegitxo osatu zuen, ondorioz. Hiztegia bi zatitan atera zen Baite aldizkarian.

Agerkari horretan bertan gure aztergaiaren bilaketa eginez gero, Koldo Zuazok euskalkien inguruan Azpeitian 2002an egin hitzaldian adierazitakoen berri jaso dezakegu.

3.4. Gure ikerketa

Gure ikergaiaren inguruan jaso dugun dokumentazioari erreparatuta ugariak dira haur hizkerari dagokionean sortu zaizkigun galderak eta zalantzak: egungo gurasoak tradizioetik datozen moldeak erabiltzearen aldeko al dira? Ezagutzen ote dituzte? Aiton-amonek soilik darabilten hizkera ote da?

Zalantza horietatik abiatuta, gure ikerketan zehar baieztatu edo ukatu asmoz honako hipotesiak izanen ditugu oinarri:

1. Azpeitiko haur hizkera bizi-bizi mantentzen da oraindik herrian.
2. Herriko guraso euskaldunak haur hizkera erabiltzearen alde agertzen dira.
3. 0-3 zikloan irakasleek ere maiz darabilte haur hizkera umeekiko harremanean.
4. Era naturalean darabilte irakasleek baina ez dute haren erabileraren inguruko

formazio edo hausnarketa zehatzik egin.

5. Azpeitiko haur hizkeran Euskal Haur hizkeraren ezaugarriak agertzen dira.

6. Azpeitiko haur hizkerak baditu bere ezaugarri propioak ere. Hipotesi hauen egiaztapena egiteko bi baliabide erabiliko ditugu: grabazioak eta elkarrizketak.

Lau grabazio burutu ditugu: 2 heldu eta haur koxkor bat, ume batekin elkarreraginean adi daitezke bertan. Anonimotasuna mantentzearen izen-deiturak erabili ordez, kodeen bidez izendatuko ditugu parte hartzaileak:

- E65: 65 urteko emakumea.
- G36: 36 urteko gizona.
- 6H: 6 urteko haurra.

Ume berarekin elkarreraginean aritzen dira parte-hartzaile guztiak. Umeak 19 hilabete dauzka. Grabazioak umearen etxean edota amamaren etxean egin dira, umea nahiz gure kolaboratzaileak eroso senti zitezten. Behatzailea ez da bertan izan, grabazio tresna martxan jartzera mugatu da, egoera baldintza ez zezan. Soinu-grabazioa egin da soilik, irudi-grabazioak egoera asko baldintzatuko zuelakoan. Jakitun gara, ondorioz, gure ikerketak aztergai zuen hizkera mota baten adibiderik ez dugula, hizkera ez berbalarena, hain zuzen. Euren elkartrukea erabat libreza izan da, espazioa, mintzagaiak, jarduerak nahiz tresnak unean bertan parte-hartzaileek erabakitakoak izan dira. Parte-hartzaileei, euren baimenarekin, ez zaie jakinarazi zein unetan izanen ziren grabatuak. Egoera ez behartzea izan da jardunbide honen arrazoia. 1., 5. eta 6. hipotesiak egiaztatu nahi izan ditugu grabazioen bitartez.

Bestetik, sei elkarrizketa burutu ditugu: parte-hartzaileen aukeraketa honako kriterio hauei jarraiki egin da: adina, izaera (aiton-amona, guraso, haur) eta lanbidea (irakasleak). Hauexek parte-hartzaileei atxikitutako kodeak:

- NI: neska, irakaslea
- MI: mutila, irakaslea
- A65: 65 urteko amona
- A70: 70 urteko aitona
- G35: 35 urteko gizona

- E37: 37 urteko emakumea

Elkarrizketei dagokienean, elkarrizketatua eroso sentitzea izan da gure helburua. Horretarako euri eman diegu aukera elkarrizketa burutzeko tokia hauta zezaten: irakasleen kasuan lantokian bertan burutu dira elkarrizketak eta gurasoen eta aiton-amonen kasuan, euren etxeetan. Salbuespena A65 izan da. Harekin kafetegiri batean burutu zen elkarrizketa.

1., 2., 3. eta 4. hipotesiak egiaztatzeko erabili izan dira elkarrizketak. Besteak beste, honako gaiak izan ditugu mintzagai: umeei duten adinaren arabera helduek euren diskurtsoa egokitzen duten eta zein eratan, haur hizkeraz zein iritzi duten, erabiltzen ote duten, hausnarketarik egin ote duten haren erabileraren inguruan, zertarako erabiltzen duten, kontsulta libururik ezagutzen al duten, ikastolan haur hizkera erabiltzen ote duten, erabili beharko ote luketen, etab.

3.5. Emaitzak eta horien ezaugarriak

3.5.1. Grabazioak

Arestian aipaturiko hipotesiak egiaztatzea dugu helburu grabazio hauen bidez.

Hauexek ziren hipotesiak:

1. Azpeitiko haur hizkera bizi-bizi mantentzen da oraindik herrian.
5. Azpeitiko haur hizkeran Euskal Haur hizkeraren ezaugarriak agertzen dira.
6. Azpeitiko haur hizkerak baditu bere ezaugarri propioak ere.

Horretarako ikerketan zehar haur hizkerari atxiki dizkiogun funtzio eta ezaugarriak izanen ditugu oinarri.

Lehenik eta behin *amama* izeneko grabazioan E65-ek haur hizkera erabiltzen ote duen ala ez behatu dugu. Erantzuna argia da: heldu honek bere hizkera hartzaile duen umearekiko moldatzen du. Horretarako erabiltzen dituen baliabideen artean honakoak aipa litezke: hizkera sinplea eta errepikakorra, enfatikoak, uneko egoerari erreferentzia egiten diona, itxuraldatutako hitzak, aldaketa fonetikoak, umearen arretari eusteko galderak behin eta berriz proposatzea...

E65ek umearekin duen elkarrizketan agertzen dituen funtzio komunikatiboak, egiten dituen aipamenei erreparatuz hauexek dira: umearen arreta erakartzea, asmo afektiboak –maitasuna– adieraztea, baita umeak hizkuntza gara dezan ere –sinonimoen erabilera izan daiteke horren adibide (*berdin-berdiñe, igual-igual*)–.

E65en haur hizkeraren ezaugarrien artean honakoak bereiz genitzake:

- Hizkera berbalari dagokionez, ezaugarri nabarmenena errepikapenen erabilera datza. Horren erakusgarri dira adierazpen hauek: *berdiñe da* (x2), *berdin-berdiñe* (x3), *igual-iguala, jango al dezu?* (x7), *banana* (x5). Umeari, bestalde, une batean, 3. pertsonaren bidez ere zuzentzen zaio: *gaztaitxue moztuko al diyou?* Txikigarriak ere erabiltzen ditu, *gaztaitxue* aipatutakoan, esaterako. Adierazpen maitekorrak darabiltza: *bihotza* (x2) eta *kariño* (x2). Galdera-erantzun eta agintezko perpausen ugaritasuna ere agerikoa da: *jango al dezu?; jateko e!; Ondo mastikau e!; Beitu; Hemen betik heldu*. Tonu enfatikoa eta intonazioan aldaketak ere nabariak dira: *beitu banana ederra!* esaldia da horren adierazlerik behinena. Onomatopeiaren bat ere agertzen da testuan: *txu-txu-txu* soinu-hotsa darabil, murtxikatzeke ekintzari erreferentzia eginez.
- Hizkera ez berbalari dagokionez, begiradaren erabilera, umearekiko hurbiltasuna, objektuarekiko interakzioa eta buru nahiz eskuekin egindako keinuak aipa genitzake.
- Azpeitiko hizkeraren ezaugarriak ere nabarmenak dira solasaldian: E65ek bere buruari noka hitz egiten dion esaldi honetan, adibidez: *Hau den mutile hazi ber duna honek!* Edota beste elementu hauetan: *gaztaitxue, berdiñe, mastikau, dezu*, etab.

Ondorioz, bosgarren eta seigarren hipotesiak ere egiaztatu ahal izan dira, E65-i dagokionean.

G36-rekin bi grabazio burutu ditugu. Bainuaren ondorengo uneari dagokio lehena, umea janzten ari denekoa; *Aitte-semiek* izendatu da grabazio hori. Bigarrena umeak lo hartu aurreko ipuinaren kontakizuna jasotzen du, horrexegatik, *ipuinaren ordua* gisa bataiatu dugu.

G36-k HH erabiltzen ote duen egiaztatzeke hona hemen grabazioaren analisia: itaunak nahiz agintezko perpausak ugariak dira (*Esan amatxoi nun daon txita eta erakutsi liburun, nun zeok txitie? beitu galderak: nola gera huan ahue nola? Nun daon erakutsiyok amatxoi*); baita azalpenezkoak ere, umearen momentuko errealitateaz ari delarik: *pardela jarri eta pijamita jantziko deu*. Errepikapenak erruz entzun ditzakegu grabazioan zehar (*txiki-txikiye; pure in dik goxo-goxue amatxok goxo goxue, azkar-azkar, poz-pozik*). Intonazioarekin jolas egiten du maiz: *ene zenbat gaztaina!* (enfaticoago); *Aratz afaldu in ber diau* (tono baxuagoan); *alaaaaa Araatz*, etab.

Hirugarren pertsona ere badarabil umeari zuzentzen ari zaiolarik: *Aratzek esan dik.*

Horrenbestez, esan liteke, ikerketako bigarren subjektuak ere euskarazko haur hizkera erabiltzen duela, umearekiko harremanean, etengabe. Azpeitiko hizkeraren berezitasunak ere islatzen dira grabazioan. Tokaren erabilera, esaterako: *nun zeok txita?, nun zeok? Leno esan dek*, etab. Erdarazko txikigarriak ere erabiltzen ditu uneren batean, gazteleraren eraginaren erakusgarri: *pijamita, katarrito*. Azpeitiko hizkeraren ezaugarriarik ezagunena ere aditu liteke lehen grabazioan, a artikuluaren ordeztze atzizkiaren erabilerari buruz ari gara noski: *afaye, gose handiye*.

35 urteko gizon bera adi dezakegu *Ipuinaren ordua* izeneko grabazioan ere. Kasu honetan ezaugarriarik nabarmenena helduak tonuarekin egiten dituen bariazioak eta jolasak lirateke. Izan ere, ipuin bat irakurtzen ari delarik, umearen arreta mantentzea du helburu eta xede horretan lagungarri zaio baliabide hori: *etorri Julietaaa! amamaaaaa, ixil-ixilik, amama esan esan esan esan!*

Ipuina irakurri (ahotsez antzeztu) bitartean umeari galderak egiten dizkio helduari behin eta berriz, haren interesari eusteko: *Zer zagoan, Aratzi gustatze al zaizkiyo? Zer huan?* Aginduak ere ematen dizkio umeari: *etorri txokoa, esan baburi ixilik eoteko, ixix.* Onomatopeien erabilera ere nabarmentzekoa da: *tapa tapa tapa* (eskailerak igotzeko ekintzari erreferentzia), *iup!* (aulkiaren gainera igo), *iiiiii* (ateak irekitzerakoan egiten duen hotsa) *txok txok txok* (eskalatzea), *ñamñam* (kroketak jaten).

Errepikapenak: *Korrika-korrika, saltoka-saltoka, gora-gora-gora, bigun-bigune, dotore-dotorie*

Ume hizkerari dagozkion hitzak: *punba erori huan, bapo, koxkorrekoa*

G35-en hizkera behatu eta aztertu ondoren, haren kasuan ere, 1., 5. eta 6. hipotesiak baieztatu litezke, arestian aipaturiko adibide ugariak horren erakusle.

Azkenik, *Jolas-solas* deituriko grabazioan urte eta erdiko umea sei urteko neskatokarekin adi dezakegu. 6H-ren hizketa moldea eta umearekiko elkarreragina desberdina da helduek orain arteko bi grabazioetan erakutsi dutenaren aldean. Izan ere, sei urteko neska koxkorrak bestelako helburuak ditu umearekiko harremanean: elkarrekin ongi pasatzea, nagusiki. Ondorioz, hirugarren grabazio honetan, hitz gutxiago adi litezke. Hala ere, zenbait patroi errepikatzen dira: agindu askotxo ematen dizkio 6H-k umeari: *in dantza; eman pa; zu txoferra bale?; Aratz beitu; beitu musika; eskukin ordie eztu*

baliyo e. Galderak maiz luzatzen dizkio neskak: Aratz, hau zenbat da?; beitu hau zer da?; Aratz hau dana zuk in al dezu?; jolastuko al dezu?; Oin puzle in ber al dezu? Haur hizkerari dagokion lexikoaren erabilera: eman pa, pupa hartu al dezu?, papo, senda-senda. Bi onomatopeiek ere badute tartea 6H-ren hizketaldian: brmm, brmmm (traktorie) traktorearen hotsa eta zast! orratzaren soinua litzatekeena. Tonu aldaketa ere antzeman daiteke: Aratz, Aratz, Araaatzzz! oihukatzeraren iristen da une horretan edota Aratz ez da jotzen! dioenean ere. Neskatoaren ahoskera ere Azpeitiko hizkeraren erakusle da: josi, hitzean bertan ikus daitekeenez.

6 urteko haurrak beraz, dagoeneko, helduen antzera, ume txikiago batekin aritzerakoan bere hizkera moldatzen badakiela erakutsi digu grabazio honek, helduek erabiltzen dituzten baliabide berak edo antzekoak maneatuz. Are gehiago, lexikoari dagokionez, baliabide gehiago erabiltzen dituela ere esan liteke, agian bere esperientziatik eta egunerokotik gertuago daudelako. Horrenbestez, Azpeitian haur hizkerak belaunaldi berrien eskutik ere etorkizuna baduela esan dezakegu.

3.5.2. Elkarrizketak

Elkarrizketen bidez bigarren, hirugarren eta laugarren hipotesiak balioetsi nahi izan ditugu:

2. Herriko guraso euskaldunak haur hizkera erabiltzearen alde agertzen dira.
3. 0-3 zikloan irakasleek ere maiz darabilte haur hizkera umeekiko harremanean.
4. Era naturalean darabilte HH irakasleek baina ez dute haren erabileraren inguruko formazio edo hausnarketa zehatzik egin.

Bigarren hipotesia noski, gurasoen nahiz aiton-amonen iritzien bidez egiaztatuko dugu. Gaiaren inguruan galdetuta jasotako aburuek ondorio argi bat ateratzeko bide ematen digute; A65, G35 eta G37-k zalantzarik gabe, haur hizkera erabiltzen dutela aitortzen dute eta gainera HH-ren erabilera ontzat jotzen dute. A70-ek adierazpen kontrajarriak egin dizkigu; izan ere, hasieran umei helduei bezalaxe mintzatzen zaizkiola dioen arren, ondoren haur hizkera erabiltzearen alde agertzen da. Ñabardurak ere badira euren artean, dena den; A65-ek adibidez, bilobak hizkuntza bereganatu arteko epera mugatzen du HH-ren erabilera. G35 ere, umeen adinaz kezkatu mintzo da, nahiz adin muga zehazteko gai ez den. G37-k berriz, 6 urteko umearekiko harremanean haur hizkerak oraindik orain tarte handia duela dio. Beraz ondoriozta liteke, azpeitiarren artean HH hedatu xamar dagoela baina haren erabileraren inguruko zalantzak eta

kezkak ere badituztela.

HH-ren erabilerak sustrai sakonak ditu Azpeitian elkarrizketatu guztien ustez. Denek egiten dute bat horretan: NI-a adibidez, HH erabiltzeko ohitura handia dagoela aitortzen du; G35ek ere gehientsuenek darabiltela azpimarratzen du; A70ek, halaber, Nuarben bere gaztaroan HH entzutea oso ohikoa zela.

A70 gure gizartean hainbesteko eragina duen joeren kontuaz mintzatu zitzaigun: “garai bat egon zen gaizki erakustea zela esan zena, (hizkera) hori ez zela erabili behar, umeei helduei bezala hitz egin behar zitzaiela”. A65-ek ere erreferentzia egiten dio gai horri: ama zela bestelako iritzia zuela adierazi du, hizkera eredu hau ez erabiltzen saiatzen zela baino amona gisa bere pentsamoldea aldatu dela eta bilobarekiko harremana estutzeko baliagarri zaiola azpimarratzen du. Zentzu horretan, G35-en esanetan, batzuetan haur hizkera entzundakoan belarrira berezi edo xeble egiten zaio, eta batik-bat aitona-amonen kasuz ari da: “euren bilobekin gehiegi erabiltzen dutela iruditzen zait igual, umea handiegia dela eta harekin erabiltzen duten hiztegia edo modua oso ume txikiekikoa, hori txarra iruditzen zait umeari bere autonomia edo garapena muga diezaiokeela iruditzen zait”.

Kontsultatu ditugun bi irakasleei HH oso gai arrotza zitzaien eta ez bata, ezta besteak ere ez dute HH eskolan erabiltzearen aldeko jarrerarik erakutsi. 0-3 zikloan aritzen den irakasleak, NI-k gainera HH-rekiko aurkakotasuna ere adierazi du: “hitz arraro horiek” erabili gabe ere, umeei dena ulertzen dute, haren iritziz. HH-ren erabilerak zama bat ere ekar lezake haurarentzat nolabait irakasle honen ustez, izan ere “bi hitz ikasi beharko lituzke eta biak elkarlotu”. MI-k ere ideia bera azpimarratzen du: “guk hitz egin izan dugu ume bati ez daukagula txitxia esan beharrik baizik eta haragia esanda ulertzen duela”.

Ondorioz, gure laugarren hipotesia ezetsi beharrean gaude. 0-3 zikloan, egun Azpeitian HH-k ez du tokirik, eta izatekotan modu inkontzientean izanen luke. Irakasleek ez dute kaltegarritzat jotzen HH, baina umearen garapenarekiko lagungarri ere ez da haien ustez.

Gure ikerketari dagozkion lehen, bosgarren eta seigarren hipotesiak atertuz (§3.4), irakasle ez diren lau elkarrizketatuek haur hizkera erabiltzen dutela adierazi dute. Batean adibideren bat jartzeko eskatuta honakoak dira burura etorri eta aipatu dizkigutenak: *alolo, apa, ñam-ñam* (G35-ek); *apapa, kili-kili, lo-lo, mu-mua, kukua*

(arrautza) *kukukurruku* (oilarra), *kua-kua* (ahatea) (A70ek).

Haur hizkera erabiltzekotan, subjektuek jokaera horren zergatia edota arrazoa zein den zehazten ba ote zekiten ere jakin nahi izan dugu gure ikerketan. Gehien errepikatu den argudioa umearekiko atxikipenari eustea edota erlazioa estutzea izan da: adinari dagokion goxotasun eta samurtasuna behar dituela hizkerak nabarmendu nahi izan zigun A70-ek adibidez. Edota amonak aipatzen duen “*hurrio*” adjektiboa ere oso adierazgarria da, umearen parera jartzen saiatzen dela esanaz. G35-ek ere erantzun borobila eman zigun: “helduekin erabiltzen dugun hizkuntza askoz zakarragoa, takarragoa da”. Umearekin lortzen den konfiantzak hizkeran ere bere isla izan behar duela aldarrikatzen zuen parte-hartzaile horrek. Bestalde hark berak arrazoi didaktikoak ere gogoan zituen, umeek hizkuntza eskuratzeko hizkera erraza behar dutela esanez, errepikakorra eta aditzen presentzia eskasarekin.

Lan honetan zehar aipagarri izan dugun beste gai bat hizkuntzaren eta hizkera partikular honen transmisioa izan da. Inkestatutako hiztun guztiek haur hizkerari dagozkion elementuak belaunaldiz belaunaldi, etxean eta inguruan entzunez jaso dituztela esan dute. Bik aipatu dute ikergaiaren inguruan argitaratutako lanen baten berri badutela, hala ere, G35-ek eta E37-k, biek ala biek aitortu dute sekula ez dutela izan liburuxka hori esku artean.

CONCLUSIONES

La adquisición del lenguaje es un hito en el desarrollo de la vida de cualquier infante y por tanto las personas de su alrededor favorecen y estimulan ese aprendizaje, tan complejo, a través de diversos medios. Tal y como hemos comprobado al desarrollar este trabajo, el ser humano adapta su discurso al interlocutor al que se dirige, y por tanto, la mayoría (si no todas) las comunidades lingüísticas han desarrollado un registro propio y específico para dirigirse a los niños.

Históricamente las encargados de transmitir ese lenguaje han sido las madres y, a otro nivel, también los padres y los abuelos. Es decir, esta forma del lenguaje se ha transmitido en el seno de las familias. Sin embargo, la estructura de la sociedad está cambiando y debido a varias razones –la incorporación de las mujeres en el mundo laboral, la caracterización de las familias en el siglo XXI– otros agentes, tales como instituciones educativas varias, se están haciendo cargo del cuidado y la educación de los niños a edades cada vez más tempranas.

Debido, además, a la situación de diglosia en la que vive el euskera en muchos lugares de nuestra geografía, esta lengua, en ocasiones, no se transmite en el seno de las familias, sino que corresponde a las instituciones mencionadas anteriormente, es decir, a las escuelas, sumergir a los niños en un nuevo imaginario colectivo.

Entendemos que para ello el Habla dirigido al niño puede ser un instrumento valioso, ya que, como se ha mencionado a lo largo de este ensayo en repetidas ocasiones, este registro facilita establecer un vínculo entre el emisor y el receptor, en este caso, entre el niño y el docente. Por añadidura, las características de este lenguaje podrían facilitar la adquisición del lenguaje, sea como lengua materna o como segunda lengua.

Y es que este registro de la lengua es rico en recursos tales como juegos de palabras, discriminación de fonemas y sonidos, utilización de melodías y ritmos diferentes, etc. son la base para ayudar a un niño a adquirir el lenguaje. También la inventiva de nuevas palabras, la vocalización, las rimas, los cuentos, las dramatizaciones, etc. son valiosas en este sentido.

Sin embargo, para ello, sería conveniente, primeramente, hacer un análisis exhaustivo de las características, funciones y usos de este registro en la lengua vasca. Y es que la documentación a cerca de este tema es escasa. Las obras más detalladas se las debemos a Juan José Zubiri (19995; 2002) y tampoco son muy extensas. No obstante,

las obras basadas en el léxico de diversos lugares (Lizarraga, 2010; Eregi, 2013) pueden ser de gran ayuda para desarrollar ese trabajo.

Gracias a este ensayo, por otra parte, hemos reflexionado a cerca de la importancia del lenguaje no verbal, clave para entablar una relación con el niño y mantener su atención e interés por nuestra alocución. Especialmente, en el primer ciclo de la etapa de infantil pero que será útil durante toda la etapa y en etapas posteriores. Consecuentemente, estimamos de suma importancia el trabajar estas capacidades comunicativas dentro de la formación de los futuros docentes.

Debemos mencionar, asimismo, el estudio empírico realizado junto a la fundamentación teórica. En la investigación debíamos confirmar o desechar ciertas hipótesis planteadas en base a la información recabada en los capítulos previos. Nuestras expectativas se han cumplido ya que gracias a las grabaciones y las entrevistas realizadas hemos observado que este registro está muy presente en la rutina de los niños de Azpeitia y es utilizado por sujetos de todas las edades. Sin embargo, no siempre hemos acertado en nuestras predicciones. Es llamativo que las dos hipótesis planteadas en relación con el uso del registro maternal en el ámbito educativo hayan sido erróneas y las otras cuatro, por contra, referidas a las características del lenguaje y su uso en el ámbito familiar hayan sido confirmadas.

Nuestra investigación deja en evidencia que hoy en día el habla dirigida a los niños está muy alejada del ámbito educacional. Sería interesante indagar el por qué de este hecho, a qué se deben las posiciones contrarias a este registro por parte de los docentes consultados.

En lo que se refiere al uso del lenguaje maternal en Azpeitia, los resultados de nuestra investigación muestran que goza de buena salud, en todos los colectivos de edad del pueblo, desde los más jóvenes, hasta los de más edad.

La duda es qué ocurrirá con este registro en los lugares en el que el euskera no tiene tanta fuerza y se transmite a través de la escuela. ¿Está este registro condenado a morir?

ERREFERENTZIAK

Ansorena, J. (2002). Haur hizkera. *Bat*. 147-148, 42.

Aurkerena, J.; Covadonga, G.; Zelaia, J. (1999). *Haur hizkera*. Bilbao: Gero.

Chomsky, N. (1989). *La naturaleza del lenguaje. Su naturaleza, origen y uso*. Madrid: Alianza.

Barret, H.; Bryant G. (2006), Recognizing intentions in Infant Directed Speech: evidence for Universals. *Psychological Science*, 746-751, 18(8).

Etxeberria, P. (1994). Hizkera jasoaren ingurukoak. *Euskera* 1527-1532, 39.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila (2012). *Haur Hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu curricularra*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Fernald, A.; Taeschener, T.; Dum, J.; Papousek, M.; Fukui, I. (1989). A cross-language study of prosodic modifications in mothers' and fathers' speech to preverbal infants. *Child Language* 477-501, 16.

Flavell, J. H. (1995). *El desarrollo cognitivo*. Madrid: Visor.

Fishman, J. (2001). *Can threatened languages be saved?*, Clevedon: Multilingual Matters.

Gavrilova, T. (2012). Who speaks baby talk? Not me!. In *Register, intersections of language, context and communication*. 31-33. Helsinki: Folkore Studies, University of Helsinki.

Ibarluzea, M. (2010). Ahozketasuna eta Hezkuntza: ahozketasuna lantzeko materialak garatzea. In *Ahoa bete hots*. Andoain: Mintzola Fundazioa eta Bertsozale Elkartea.

Jimenez, J. (2010). *Adquisición y desarrollo del lenguaje in Psicología del desarrollo en la etapa de educación infantil*. Madrid: Ediciones Pirámide.

Lekuona, M. (1921). Lenguaje infantil. *Anuario de Eusko Folkore*, 31-37, 1.

Lizarraga, J. (2010). *Haurren munduko hiztegi txikia*. Lizarra: Nafarroako Gobernua.

Maia, J. (2008). *Eskolako hizkera*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Monasterio, X. (2010). *Mintzairaren miraria*. Gaiak saila. Donostia: Elkar.

Ochs, E.; Schieffelin, B. (1995). *The Impact of Language Socialization on grammatical development*. Oxford: Blackwell.

O'Grady, W. (2005). *How Children Learn Language*. Cambridge: Cambridge University Press.

Owens, R.E. (2003). *Procesos en la adquisición del lenguaje*. Madrid: Pearson.

Papousek, M.; Bornstein, M.H.; Nuzzo, C.; Papousek, H.; Symmes, D. (1990). Infant responses to prototypical melodic contours in parental speech. *Infant Behavior and Development*, 539–545, 13.

Pinker, S. (1994). *The language instinct*. New York: William Morrow and Company.

Siguan, M. (1984). *Estudios sobre psicología del lenguaje infantil*. Col. Psicología. Madrid: Pirámide.

Skinner, B. (1981). *Conducta verbal*. México: Trillas.

Snow, C. (1986). Conversations with children. In Garman, M. and Fletcher, P. (eds.), *Language acquisition*, 69-89. Cambridge: Cambridge University Press.

Tomasello, M. (2003). *Constructing a Language: A Usage-Based Theory of Language Acquisition*. Cambridge: Harvard University Press.

Vygotski, L. (1979). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Barcelona: Grijalbo.

Wiggins, P. (2000). *Infant brain development*. Texas: Texas Child Care.

Xamar [J. C. Etxegoien] (2001). *Herri eta hizkuntzen ekologia*. Iruñea: Pamiela.

Zuazo, K. (2008). *Euskalkiak: euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

Zuazo, K. (2008). Euskara normaltzeko bideak. In *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. X., biltzarra*, 3-15. Bilbo: Euskaltzaindia.

Zubiri, J.J. (1995). Euskarazko haur hizkuntzaren berezitasunak. *Huarte de San Juan. Hizkuntzaren Filologia eta didaktika*. 177-203, 1.

Zubiri, J.J. (2002). *Haur hizkeraren erabileraz*. *Hizpide*, 16-30, 49.

ERANSKINAK

E1. ELKARRIZKETAK (Transkripzioak)

Haur hizkera erabiltzen al duzu?

A 65 Bai, batzutan bai bestetan ez

A70 Ahalegintzen naiz pertsona helduei bezala hitz egiten. Tratu eta jarrera hori, bai gozo bai baino naturaltasun batekin. Ikasten joan naun denborak aurrera egin ahala, errespetuzko jarrera. Igual aurretik bestelako jarrera zuela aitortzen du

G35 bai modu desberdinean helduei eta umeei

E37 Bai, bueno ba gauza askotan adibidez janari hitz egiterakoan edo ura, edo garbitzeko kontuak, badago hizkuntza bat ia sortuta dagoena beraiantzako dena, ez da ikasitako hizkuntza bat baizik eta generazioz generazio jaso duguna,

Umeekin zeure hizkera egokitzen al duzu? Zertan?

A 65 Bai

A70 goxotasune xamurtasune “adinek eskatzen duna” hizketan zeinek ari zaren ba haren mailan, ume hizkera beti ezagutu izan det Nuarben, hizkuntza hori oso aberatsa izan den, akordatzen naun aldagoitiarrek ze egoki erabiltzen zuten hizkuntza hori, ahoskapena s eta z bereizten zutenak ekarri txitxia pupua egin dezu ttatto hortiken

G35 Hainbat hitz umeeei zuzendurikoak ez dakit betikoak alolo apa ñamñam

E37 Bai, gauza askotan adibidez janari hots egindakoan edo urari. Bada hizkuntza bat jaso duguna belaunaldiz belaunaldi eta erabiltzen duguna horretarako. Adibidez, haragiari *txitxi*, janari *ñam ñam*, kaleari *apapa*, etab. esaten ditugu.

Haur hizkera erabiltzearen aldeko al zara? Kaltegarri izan liteke?

A65 nire umeei ez zait gustatu izan baino orain ez diot inportantziarik ematen

A70 garai bat egon zen gaizki erakustea zala, esan zena hori ez zela erabili behar umeei helduei bezala hitz egin behar zitzaiela, koldo zuazo esplikatzea etorri zen ume hizkera batuta genuela geroztik janzten juten haiz, hizkuntza nere ezinbestekoa dahizkuntzari dagokiona gaur egun bai gure hizkuntzak aberasten du.

Haur hizkera nola definitzen duzu, zer ezaugarri aipa ditzakezu?

A65 Ez dakit (denbora tarte bat) mandarina esateko banana estaen du ta... berak

erabiltzen ditunak kalea apapa, muxu estaeko pa. niri umeak asko gustatzen zaizkit eta ez dakit beste zea bat mantsoago espresioak nabarmenago begietara begiratu euren neurrira altuago

A70 Hitz bereziak: *apapa, kili kili, lolo, mumua, kukua* arrautzari, *kukurruku* oilarrari *kuakua* ahateari.

G35 tonoa, goxotasun gehiagorekin hitz egiten diogula umeei, bolumena (xuabio, baxuo) hitzak moduak keinuak gehiago pentsatu eta gehiago erabili aditzak gutxi pixkanaka geroz eta gehiago

E37 Antzerkia egiten ariko bazina bezala da, espresio handiagoak. Heldu batekin distantziak askoz gehiago zaintzen dituzu.

Zein da haur hizkera erabiltzeko adin-muga?

G35 bai jaio zenean oso oinarrizko hitzak hitz eta egitura sinpleak geroz eta osoagoak eta horrela erabili behar direla iruditzen zait

A65 Umea hitz egiten hasten denean, nik uste utziko diodala horri.

G35 Ez dut uste beti ume bati horrela hitz egin behar zaionik, poliki poliki helduen ohiko hizkuntza erabiltzen da; ez dakit muga non den, noiz arte izango den pentsatzen det 3-4 urte arte nahikoa izango dela uste dut.

Funtzioak: zertarako, zergatik erabili HH?

A65 Como más *hurrio* gauzak garbiago estaen intentatze nun bere era bere parea jartzen naiz berak erabiltzen dituen hitzak erabili erten iteit

A70 Goxoago sentimentalago, umearekin lotura hori estutu egiten dela iruditzen zait, umeekin erabiltzen dugun hizkuntza hori askoz zakarragoa, takarragoa da, berarekin lortzen duzun konfidantza horrek hiztegia zerikusia dauka

G35 Umeek hizkuntza eskuratzeko oso erraza errepikakorra aditzak urriak poliki garatzen goaz goxotasuna binkuloa egiteko politte eta beharrezkoa ez dakit hizkuntza guztietan den beharrezkoa

E37 Ba egia esanda ez dakit umeak zenbateraino bereiztuko lukeen kalea esan edo apapa esan baino irduitzen zait apapa horrek baduela goxotasun hori baduela berarenganako maitasun bat kalea esateak ez daukana. Heldu batekin kalea esnago nuke baino umearengana hurbiltzeko modu berezi bat izan daiteke apapa, nahiz ta berak biak ulertu.

Lagungarri edo kaltegarri izan daiteke hizkuntzaren jabekuntzarako?

Haur Hizkeraren transmisioa: eskolaren eginbeharra eta Azpeitiko kasua.

A65 hizkuntza ikasteko kaltegarri.

Transmisioa: kontsulta libururuik edo ingurunetik

A65 beti entzun die, bai bai azpeitin garbi hitz egin behar zaio orain ez diot inportantzirik ematen. Liburuak ez

A70 haurtzaroarekin lotzen du gehiago ni ahalegintzen naiz hori erabiltzen, ni ez naiz akordatzen egon balitz iruditzen zait edukiko nukeela.

G35 guk geure gurasoengandik jaso ditugunak eta haiek haien gurasoengandik edota guk asmatzen ditugunak umeari gustatu zaizkiolako, egoera berrien aurrean, zerbait ulertu duela iruditzen zaigulako...

E35 Azpeitin bertan ez dakit ba ote den libururik, baino bai umearekin hasi ginenean liburutegian eta ikusi nituen liburu batzuk eta bertan ikusi nuen agertzen zela nola esaten ziren zenbait gauza baino bueno ez dut libururik irakurri hola hitz egiteko umearekin nik natural jaso ditudan hitzak erabiltzen ditut, erreproduzitzen ditut niri natural irtetzen didana

Eskolaren papera

A65 eskolan hitzen bat o beste bai ez Nik uste normalean ezetz, hori etxeok erabiltzeko gehiago dela, aiton amonek edo gurasoek andereñoek baino.

A70 Haurtzaindegietan argi ta garbi erabili in behar dute umea hizkuntza ikasten ari da izen oso polittekin dituk ze ondo egokitzen zekiten gure aurrekoek ume hizkerara ere, ttatto eseri apatx aurrekoek bazekitela ustet nik gehiago ikasten saiatzen bagara txapeldun ze egoki papua hartu al dezu? Pupua

A35 ba ez dakit agian bai, baldin bada gehiegizkoa ba ez. Umearen adinari egokitutik beti ere. Irakasleek edota gurasoek agian lotura beti mantendu lezakete zenbait hitzen bidez.

Inguruan erabiltzen da?

G35 Bai gehienok. Nik neuk erabiltzen dut baino bai gertatzen zaidala batzuetan entzuten dudanean belarrira berezi edo xeble egiten zait batik bat aiton amona batzuek entzuten ditudanean haien bilobekin gehiegi erabiltzen dutela iruditzen zait igual umea handiegia iruditzen zait eta harekin erabiltzen duten hiztegia edo modua oso ume txikiekikoa, hori txarra iruditzen zait umeari bere autonomia edo graapena muga dakiokela iruditzen zait.

E37 Bai, nik uste gehienok erabiltzen dugula. Igual izanen dira baten batzuk erreakzioa dutena, gauzei bere izenez deitu behar zaiela diotenak, baino nire ustez une zehatz baten erabiltzen den zerbait da eta gero bere kabuz desagertzen doana.